

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 400/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, 2009ko apirilaren 23koa, Kontseiluaren 2223/96 (EE) Erregelamendua aldatzen duena, Erkidegoko nazio eta eskualdeetako kontuen sistemari buruzkoa Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenen eremuan.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «REGLAMENTO (CE) Nº 400/2009 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2009, por el que se modifica el Reglamento (CE) nº 2223/96 del Consejo relativo al sistema europeo de cuentas nacionales y regionales de la Comunidad, en lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 126/11 de 21/5/2009)

400/2009/EE ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2009ko apirilaren 23koa,

Kontseiluaren 2223/96 (EE) Erregelamendua aldatzen duena, Erkidegoko nazio eta eskualdeetako kontuen sistemari buruzkoa Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenen eremuan

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Trataturia, eta, bereziki, haren 285. artikuluko 1. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuko 251. artikulua [1] araututako prozedurarekin bat,

Hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kontseiluaren 2223/96 (EE) Erregelamendua [2] arautzen du neurri zehatz batzuk hartu behar direla Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiak, 1999ko ekainaren 28koak, Batzordeari esleitutako egikaritze-eskumenak gauzatzeko prozedurak ezartzei buruzkoak, xedatzen duenari jarraituz [3].

(2) Kontseiluaren 2006/512/EE erabakiak [4] aldatu egin zuen 1999/468/EE Erabakia. Hala, kontrol-dun arautze-prozedura bat ezarri zuen, irismen orokorreko neurriak hartu eta Tratatuaren 251. artikuluko prozedura betez eman diren oinarri-egintzetako elementu ez-funtsezkoak aldatzeko, elementu horietako batzuk kentzeko edota egintza funtsezkoak ez diren elementu berriekin osatzeko.

(3) 2006/512/EE Erabakiari buruz Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak egindako adierazpenak [5] xedatzen duenez, Tratatuaren 251. artikuluan ezarritakoari jarraituz erabakitako egintzetan kontrol-dun arautze-prozedura aplikatu ahal izateko, egintza horiek aplikagarriak diren prozeduretara egokituko dira.

(4) 2223/96/EE Erregelamenduari dagokionez, komeni da Batzordeari eskumenak ematea Europako kontuen sistemari egindako aldaketak onar ditzan (1995eko metodologia), eta estatu kideei eskatzen zaizkien datuei dagozkien aldaketei buruzko erabakiak har ditzan. Neurri horien aplikazio-esparrua orokorra denez, eta neurrien xedea 2223/96/EE Erregelamenduko elementu ez-funtsezkoak aldatzea edota hura funtsezkoak ez diren elementu berriekin osatzea denez, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikulua xedatutako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

(5) Beraz, hori kontuan hartuz, egokia da 2223/96/EE Erregelamendua aldatzea.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:

1. artikulua

2223/96/EE Erregelamendua jarraian adierazten den moduan aldatuko da:

1) 2. artikuluan, ondoko testu hau jarriko da 2. paragrafoaren lekuan:

"2. Batzordeak SEC 95 metodologiaren edukia argitzeko eta hobetzeko aldaketak egiteko erabakiak hartuko ditu; betiere, ez bada oinarriko kontzepturik aldatzen, aldaketak egiteko baliabide osagarriak behar ez bada, eta aldaketa horiek aplikatzeak ez badakar norberaren baliabideak handitzea. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko edota berau osatzeko hartutako neurri horiek 4. artikuluko 2. paragrafoak xedatutako kontrol-dun arautze-prozedurari jarraiki hartuko dira".

2) 3. artikuluko 2. paragrafoan ondoko testu hau jarriko da bigarren lerrokadaren lekuan:

"2. artikuluko 2. paragrafoan zehaztutako mugen baitan, Batzordeak estatu kideei eskatzen zaizkien datuetan aldaketak egin ditzake (koadro berriak, interesa duten nazioak eta eskualdeak). Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko edota berau osatzeko hartutako neurri horiek 4. artikuluko 2. paragrafoak xedatutako kontrol-dun arautze-prozedurari jarraiki hartuko dira".

3) 4. artikulua ordez, testu hau jarriko da:

"4. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Batzordeak programa estatistikoko Komitearen laguntza izango du (hemendik aurrera "Komitea" deituko diogu).
2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, Erabaki horretako 8. artikuluan xedatutakoa betez.

2. artikulua

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit hamar egunera jarriko da indarrean Erregelamendu hau.

Erregelamendu honetako alderdi guztiak nahitaez bete beharrekoak dira, eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoak izango dira.

Estrasburgon emana, 2009ko apirilaren 23an.

*Europako Parlamentuaren izenean,
Presidentea
H.-G. Pöttering*

*Kontseiluaren izenean,
Presidentea
P. Nečas*

[1] Europako Parlamentuaren txostena, 2008ko azaroaren 18koa (oraindik Aldizkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko martxoaren 5koa.

[2] L 310 EO, 1996.11.30ekoa, 1. or.

[3] L 184 EO, 1999.7.17ekoa, 23. or.

[4] L 200 EO, 2006.7.22koa, 11. or.

[5] C 255 EO, 2006.10.21ekoa, 1. or.